

2009ko hirugarren hiruhilekoan esportazioen unitateko prezioek % 8,7ko tasa izan zuten urte batetik bestera

Inportazioen prezioek beherapen handiagoa izan zuten, % 20,5ekoa

Eustaten datuen arabera, 2009ko hirugarren hiruhilekoan esportazioen eta inportazioen unitateko prezioek behera egin zuten, Unitate Balioaren Indizeen arabera neurtuta. Inportazioek izan zuten beherapen handiena, % 20,5ekoa; esportazioen prezioek, aldiz, beherapen neurrizkoagoa izan zuten, % 8,7koa.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, inportazioaren unitateko prezioen gorakada (% 4,1) esportazioena (% 0,5) baino nabarmenagoa izan zen.

Euskal AEko kanpo merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak, xede ekonomikoa aintzat hartuta. 2009ko hirugarren hiruhilekoa

(%)	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t / t-1	t / t-4	t / t-1	t / t-4
Indize orokorra	0,5	-8,7	4,1	-20,5
Kontsumo-ondasunak	3,1	-4,1	4,6	0,6
Kapital-ondasunak	-6,6	-3,4	2,3	11,8
Bitarteko-ondasunak	1,4	-10,9	4,5	-24,2

Iturria: Eustat

Sailkapena xede ekonomikoaren arabera eginez gero, esportazioaren prezioak urte batetik bestera izan zuen beherapena ondasun mota guztietan eman zen. Beherapen hori tarteko ondasunetan eman zen batez ere (- % 10,9) eta neurrizkoagoa izan zen kontsumo-ondasunetan eta kapital-ondasunetan, % 4,1 eta % 3,4ko beherapenekin hurrenez hurren.

Inportazioaren unitateko prezioaren beherapena izan zen nabarmenena, eta tarteko ondasunen prezioen erortzearen ondorioz eman zen (-% 24,2). Halaber, azken hauen erortzean eragin handia izan zuen tarteko energia-produktuak inportatzeko prezioaren atzerapenak (-% 35,1). Kontsumo-ondasunek aurreko urteko prezioa mantendu zuten (% 0,6), eta kapital-ondasunak inportatzeko unitateko prezioek urte batetik bestera nabarmen egin zuten gora (% 11,8).

Gure ondasunak inportatzeko jatorri diren **geografia-eremuak** kontuan hartuz gero, hirugarren hiruhilekoko inportazioaren unitateko prezioak aurreko urteko hiruhileko berekoak baino txikiagoak izan ziren eremu guztietan. Munduko gainerako herrialdeetan % 26,6 egin zuten behera eta eurogunean % 17,3. Prezioen erortzea ez zen hain handia izan ELGEko herrialdeetatik etorritako inportazioetan (-% 14,7).

Euskal AEko kanpo merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak, geografia-eremua aintzat hartuta. 2009ko hirugarren hiruhilekoa


(%)	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	0,5	-8,7	4,1	-20,5
Euro eremua	1,2	-7,7	-3,2	-17,3
EB-27	0,1	-7,1	0,9	-16,7
ELGE	-0,6	-7,6	2,7	-14,7
Gainerako herrialdeak	3,6	-13,5	7,0	-26,6

Iturria: Eustat

Urte batetik besterako tasei dagokienez, esportazioaren prezioen beherapena, oro har, inportazioen prezioena baino txikiagoa izan zen eremu guztietan; munduko gainerako herrialdeetako beherapena izan zen handiena, gainera (-% 13,5). Euroguneko (-% 7,7), EB27ko (-% 7,1) eta ELGEko (-% 7,6) esportazioen prezioetan ere eman ziren beherapenak.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, geografia-eremu bakoitzean inportazioen prezio ezberdinak eman ziren. Euroguneko herrialdeetan erositako produktuen unitateko prezioek izan zuten beherapen handiena (-% 3,2); gainerako herrialdeetan prezioek gora egin zuten, batez ere munduko gainerako herrialdeetan (% 7). Esportazioei dagokienez, unitateko prezioek soilik egin zuten behera ELGERako produktuetan (-% 0,6); gainerako lurraldeetan eta eurogunean hilabete batetik besterako tasak positiboak izan ziren, % 3,6 eta % 1,2, hurrenez hurren.

Euskal AEko kanpo merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak. Urte batetik besterako tasak (joera)



Iturria: Eustat

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Patxi Garrido

Tel.: +34-945-01 75 13 Faxa: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp